

Iru Euskal iztegi berri

AITA ONAINDIA

Iru liburu berri agertu zaizkigu oraintu, zein baiño zein ederra- goak. Iru iztegi, iru euskal iztegi: irurak erdal euskerazkoak. Eta gertakari aundi bat izatean bezela, txalo-joka ekin bear genioke as- pertu gabe. Lendik ere ba-genitun iztegiak, azkue jaunaren euskal er- dal printsesa batez ere, 1903'an egiña, oso bikaina. Baita erdal eus- kerazko batzuk ere ba-genitun, txi- kiak baiña urte-mordoetan asko la- gundu ditutenak. Aita Bera'rena berezik. Alan be, utsune aundia genun sail onetan, eta azken or- dusan etorri zaizkigun iru berrik ederto ornidu dute utsune ori.

Euskaldunok, nik ez dakit zerga- tik, kritika auzian oso zorrotzak izan oi gera. Idazlan batek euki itzakaren edertasunak goratu ta apika ditun akatsai tamaina artu bea- rrean, makar-utsak sardu gain era- billi ta osoan eguratsera atera oi ditugu. Jokabide egokia danik ez det uste, batez ere gure euskal ario urrian. Dana dalakoa aize-urkula erabiltzen dakiten auek, dudarik gabe, iru iztegi auetan ere aurkitu- ko dituzte olako ta alako uts-aka- tsak. Baiña iru argitalpen auek —Buenos Aires'ko EKIN'ek argi- tarta emana, Aita Muxika'ren ta Auhamendi'k argitaratzen asia—, bakaizta bere zelai ta esnean, ederki bozobildu ta irixiak dirala aitortu bear degu. Aspalditik somatzen zar utzarrea bete ta mesede ikaragarria egingo diote gure izkuntzari.

Ona iru iztegi auen berezitasun batzuk.

IZTEGI (erdera-euskera). Buenos Aires, 1964, 324 orrialde. EKIN argitaldaria bere liburu sortan irarri du. Igaz Azkue zanaren jaiotze- tiko eun urte burua ospatu gendun, eta itxaso ardi euskaltzale jator aiek ere beren ondaraletxoak jarri nai izan zuten or-emen ari aundi- kiro egiñiko goratzarre saillean. Iz- tegi au, bada, omen eta maite-era- kutsi apal antzera, euskal langille garsi ari eskeifia degu. Eta, izan ere, ezta steraldi ta burutapen ma- kala, ondorengo iztegi guztiak arek egiña baitute eredu ta oinarri.

Egilleak ez ditu azturik alde utzi Araneder, Lhande, Bera-Lopez Men- dizabal ta Lafitte-Tourner'en izte- giak, euskal bitxirik ederrenak be- ren orrialdeetan irau-n-azi zituzte- nak noski ez ditu zokoratu euskal idazle aundi sakuren esaera ta itz egokiak; ez ditu bazter utzi ameri- ketar lurralde zabal aietan aintzi- fiatik bizi diran euskaldunak dau- katen itz bereziak. Auekin osaturik daukazu inolaz ere arbulatu bear ez degun iztegi au, egilleak asmorik bikaiñenakin egiña.

Onako iztegiak beti du gora aundia. Itzak dira izkera baten zain ta zapata, ta itzak geienoz iztegi- tan bildu ta gorde oi dira, erabilliz jagon ta eutsi-azirik. Itzak, gaur batez ere, iztegiaren bitartez zain- du ta zabaldu oi dira; ementse bai daukagu itzak, esaerak, adierazpe- nak, antzekoak, inguruak eta joo- rak. Itz berriak ere, erriak eta idaz- leak sortu ta erabiltzen dituzten neurrian, iztegiak bere altxortegi jorian gorde ta zaintzen dizkigu, aldirik aldiko auterapen eta era berriak eskatzen dutenez.

Onak ba-du iztegi landa beste obaririk ere. Euskal atzizkiak impor- tanti aundikoak dira euskeran, itz baten zentzunari ematen dieten esangura berezietan; atzizkiok ego- ki erabili ta jartzean dago, egon ere, idazle trebearen euskal sena ta joritasuna. Iztegi onak ogel orrialde dakazki atzizkieri eskeifita. Erara ta gogoz egiña dirudi gai oneri bu- ruzko lana.

DICCIONARIO CASTELLANO- VASCO. Aita Muxika'k egiña: Bil- bao, 1965, 1803 orrialde. Iztegi ede- rra, azalez ta mamiz, iritzi-emaille zorrotz, irazi ta askaitzenari ere gogoa betetzeko aifiakoa. Bai, txu- riketan ari berik, ago betean esan dezakegu: «Iztegi bikaina». Gaur arte ezta olako erdera-euskerazko iztegitik azaldu: erderazko itzik geienak, ugari ta nasai, euskeraz ematen dizkigu.

Lan au etzan gizon bakarrak egi- tekoa, askoren artean baizik. Aita Muxika'k, ala ere, bakar-bakarrak osatu du. Berak dioskunez, urte as- ko eman ditu lan orretan, baiña ederki emandako urteak noski, eus- kerari egin dion mesedea ikaraga- rria da-ta. Orain ogetabost edo be- rrogetamar urte olako bat izan ba' genui Aita Bera zanaren txikiak be- re neurrian paper ederra egin zi- gun, baiña esku artean au esaterako euki izan ba'genu, ez giñean ziurrik asko ain illunpetan ibilliko. Dana dala, gaur ere ezta berandu ta iztegi eder onen eragiña laster nabari izango da gure idazleen artean. Itz bakoitzari zere esangura ta doita- suna ezartzeak, asko lagunduko di- gu. Orain, gaitera, ez daukagu itz berriak nola asmatu ez dakigula zertan ibillirik; iztegi ontan guztia degu. Griegotik datozen itzen itzul- pen-era ta azken orrialdeetan daka- rren atzizki-saillak, zenbat balio du- ten!

Lan au eratzeko iturririk joriena, jakiña, Azkue jaunaren euskal es- painiar printses iztegia izan du egi- lleak; baita gerora argia ikusi duten zisa ontako lanak ere. Orrezaz gai- nera, gramatika askotako iztegitxo, alkaz-izketa ta egin izan diran itzul- penak ere begi surrean euki ditu. Orrelaxe, ekin ta ekin, burutu digu azkenez iztegi mardul onuragarri au. Azken aldi onetan edozein gait- ez idatzi izan da euskeraz, eta Ai- ta Muxika'k, idatzi guztiok irakurri ta arretaz jaso ditu oietako ederta-

sun, itz berri ta gaiterakoak. Origa- tik oso gaurkoa degu bere lana.

Au egitea etzan noski gauza erre- za. Beste aldetik, azken urteotan naikoa istillu erabillak gera garbi- zale ta mordollozalean artean. Aita Muxika'k erdiko bidetik jo du, ez garbigi, ez mordolloegi. Garbigi izan gabe, erderakada asko baztertu ditu euskeraz jatorzaren mulfari be- rea emanik. Nik ueuk bere jokabi- dea ontzat artzen det oso-osoa, bi- derik artez oberena orixe dala de- rizkiot eta. Euskeraren erailetatik ainbat itz berri sortu dizkigu, edo beintzat errez ta garbi nola sortu itezken adierazten digu. Europa'n gaur diran izkuntzetatik iru dira batez ere itz berriak sortzeak edo eratzeak erreztasun aundia dutenak: zerkera, alemana ta euskera. Gure inguruko izkuntzak, españerak eta prantserak, eta euskerak ezin izan bezaz jokabide berdiña itz berri au- zian. Euskerak errez ta egoki eratu lezazke bear ditun itzik geienak, griegotik artzen ibilli gabe.

Arrotz izkuntzetatik ere, egiñ, ar- tu bearko ditugu, ta orainarte baiño itz arrotz geiago, gaur batez ere, izkuntza landu guztiak egin duten bezela. Baiña kontuz ibilli bear de- gu ontan. Ikusi leenik euskerak ba- duen ala ez itz ori, pentamentu ori esan nai adierazteko itzik; ezpa-du, artu arrotz itza. Onetan, orraitillo, segi A. Muxika'ren onu au: gauza esateko arrotz itza baiño argiago danean, ez ezetsi euskal itz berriak. Esaterako: *litofago* ez dizu lfok ulertuko, griego itza dalako; baiña esaizu euskeraz berbera, *arri-jale*, ta edozeiñek ulertuko dizu. Zentzuna bear emen ere.

ERDAL-EUSKAL IZTEGIA. Do- nosti, 1965. B. Estornes Lasa'k zu- zendaritza ta I. Goikotxea'k anto- laketa egiñik, Auhamendi argitalda- riak ematen digu iztegi au. Au ere, beste biak bezela, Euskaltzaindi- ren sortzaille ta buru izan zan R. M. Azkue jaunaren oroiz eta ome- nez egiña da.

Amar bat ale izango diran arren, oindiño bi ale besterik ez tira azal- du. Bildegí osoa nola izango dan? Garrantzi aundikoa nunbait. Goi- zean goizetik mendi ostez jaiziz doan eguzkiaren len-izpi adarrak aren aunditasun ta edertasun osoa- ren ezugarri izan oi diran bezela, bi ale auek ere liburu osoaren argi- rik naikoa damaigute. Egillaak diot- tenez, milloi-erdi itz, aldakari, adie- rakide, esaera, adiera ta adibide ugari izango ditu. Naitaez eder bi- kaiña izan bear.

Azkue'ri jarraika dabiltra auek ere. Beren kasa lan izugarria egin luten arren, aren euskal-erdal izte- gi nagusiak baliatu dira; baita arek erdi osatu zun erdal-euskal iztegi- lanak ere esku artean erabilli dituz- te, ta ark argitaratu gabe utzi zitun itz-mordoak laguntza ballotsua emango zioten dudarik gabe. Erdal itz askoek ez dute sarri euskal or- dezko bat baizik; beste batzuk, or- dea, sail ugaria, baita naste pizkat ere. Auek denok eratu ta egokitu bear izan dituzte egilleak. Euskal- kien antolabidean, berziz, jeografi arauz jokatu dute. «Barrukoari de- gokionez —diote—, adiera zuzen- dun itzak dihoaz surrenik, adiera zabalagodunetatik ari ta berarizko- dunetara; ondoren irudi gisa artzen diran adierazkoak; gero adiera be- rezi-bereziak, esaerak eta ondarrean adierakideak».

Lan ederra. Ar bitzate gure gorea- menak eta txaloak.

UNERA

CARLOS SANTAMARIA

merikatarrak. Biak kristau ziran, bata kuakero deritzan erlijiokoa. Biak pa- zafistak" esaten dieten oienetakook, itzat pakearen alde eskeñi nai inen Pentsabidekoa da gertaeri naragarri- on aldetik zoriz arrezho gazteak egin oi dezakegu, inolaz ere, gizonaren bi- Goikoa baida. Berak bere eskuetan baña, ez gaitzezen sartu kontzientziak agun barnetako neurtzailleak izan nai, ditugun neurri beraz neurtuko gaita, gazte aien barrunpean gertatu da- akat gizontzo naizen onak? Gudo, gompenperatuta daukate mundua. Nor orreh bata beza lenengo arria.

MARGOAK ETA LUMEROAK

ri bat ikasi degu egun abetan. Zen- en bi lumero mota daude margo ezber- zenbaki zuriak eta zenbahi beltzak. atek, irurogei bateko beltz balio ditu, erreza da arimetika margodun ori, ba- , jakiña. Begira, Rodesia erri samatua- rriak agintzen denez, angu Parlamen- bost diputadu izango ditu aurreran- rogei ta amar diputadu aukeratuko di- libertade ta askatasun guziain", gai- utatu. Gisa ontaz, zuriek aukeratutako diputaduek, berreun ta ogei milla uri- ari izango dira. Beste ayabost esku beltzek antatukoak, iru milloi bede- rogei milla beltz en ardezko ditugu. dalako bat ezartzen ba diuzate pro- gubi ikusiko dezute zuri bakorraren beltz dituzutela. Barbatu, sinbeste zen- en dizutedalako, bñan nik esaten da- urria, jatorrizko zenbakizian, bat eta urria, Rodesia'ka zenbakizian, ez. Rode- sian, irurogei ta bat egiten omen dira. A. irurogei ta bat egiten omen dira. A. irurogei ta bat egiten omen dira. A. irurogei ta bat egiten omen dira.



Edizondo kirolak

Arnak, eiza ta arrantzia, erre- galu gaiak, kamping, tennis, sky, golf, sport'erako jantziak

AVDA. ESPAÑA, 4 - TELEFONUA 14210 DONOSTIA'N

sintasol

Gaurko solairuetarako jantzia. Gipozkoako zahaltzaillesk :

ARISTEGI ANAIK

Almazena: Moraza, 4 — DONOSTIA — Tel. 19.446